

BASERRIA

Tente eta elegante. Dotore. Begira jartzen natzaizunetan zure begien zain izaten naiz. Zure begi erneen zain. Baina beti topatzen zaitut egun. Beti zure baitara bildua. Badakit esna zaudela . Ikusten gaituzula eta irri egiten duzula barrurantz, irribarre jolasti batekin zure barne sekretu guztiak bilduz. Egurrezko gorputzaren alde banatan harrizko bi beso ikusten dizkizut nik. Harrizko besarkadak oparitu zalea zara. Goxoa da zure besarkada, beroa, etxekoa. Behin harrapatu zintudan begiak zabalik, eguzki gosez. Behin bakarrik. Badakit gehiagotan ere egiten duzula. Inor begira ez dagoenean batez ere. Begiak ireki. Jolastu nahi baduzu, ni ere jarriko naiz zurekin jolasean. Egingo dizut kuku hemen eta kuku han, zure txoko ezkutuenetan egingo dizkizut kilimak eta ezustean harrapatzen saiatuko naiz. Hori bai, beti goxo eta bero, zure harrizko besoen neurrian.

Badakizu zer egin dudan gaur? Zure aurrean jarri eta nik ere begiak itxi ditut. Eta bidaiari joan naiz ehun, berrehun, hirurehun, laurehun, bostehun urte atzera. Hori denbora asko-asko-asko da. Momentu batez ez zaitut ikusi. Tira, ikusi zaitut, baina ez hain handi eta egurrezko. Etxolagune txiki bat ikusi dut, etxebizitza eta ikuila txiki bat biltzen zituena. Eta bat-batean ikusi ditut enborrak eta enborrak, haritzak eta haritzak tentetzen eta tentetzen. Zenbatzen hasi naiz bat, bi, hiru... eta berrehun haritzezko baserria eraikitzen ikusi dut. Berrehun! Gero etorri dira harrizko besoak, eta... Aizu, ze toki ederrean eraiki zintuzten... Gain argi honetan, zoko hezeetatik urruti... begiak itxi ditut eta Domingo ikusi dut etxe inguruko soroak lantzen, Martintxo etxe aurrekobaratzeko barazki artean saltoka eta Kattalin buru gainean ur-ontzia hartuta errekatik bueltan. Ia joan naiz korrika laguntzera. Bada zerbait begiak itxita eta begiak irekita ikusten dudana: etxe atariko atean dagoen eguzki-lorea. Babes-puntua, babes-indarra barneratzen duena. Hor zegoen eta hor dirau. Sssssssssssssssssssss Igartubeiti, zure taupadak bezala. Hortxe zeuden eta hor diraute. Begiak irekiko ditut, poliki eta argi, ea gaur begi-zabal topatzen zaitudan.